

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko azaroaren 19a / 695. zenbakia



MONDRA ETA UDA, BURUZ BURU

Kapitainekin izan gara biharko
derbia 'berotzen' hasteko

ORAIN ETA HEMEN: SINADURA ELEKTRONIKOA/6 • KULTURA: JOKIN ZAITEGI SARIKETA/10

GREMIOEN GIDA/20

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 19**
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74
- ZAPATUA, 20**
Español. Araba etorb. 14 943 79 18 65
- DOMEKA, 21**
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09
- ASTELEHENA, 22**
Zabala. Zarugalde 42. 943 77 16 30
- MARTITZENA, 23**
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15
- EGUAZTENA, 24**
Azkoaga. Iturriotz 17. 943 79 79 99
- EGUENA, 25**
Corcuera. M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- EGUBAKOITZA, 26**
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39

TELEFONOJAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Igoalatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelhehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

- Arrasate**
Astelhehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILIAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzailleburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
. 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

San Juan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (elebiduna)	Domeka 10:00 (gaztelaniaz)
11:00 (euskaraz)	11:00 (euskaraz)
12:30 (elebiduna)	12:30 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Marinako eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 09:00 (euskaraz)	Domeka 11:00 (gaztelaniaz)
10:00 (elebiduna)	
12:30 (elebiduna)	
19:00 (elebiduna)	San Isidro eliza
	Zapatua 20:00 (euskaraz)
Uribarri parrokia	Santa Teresa eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:30 (elebiduna)
Domeka 11:30 (euskaraz)	
12:30 (gaztelaniaz)	

OHARRAK

JOSTAILU TRUKAKETA
Txatxilipurdi elkarteak antolatzen dabilen jostailu trukaketa merkaturako, etxeetan dauden jostailuak batzen jarraitzen dute. Eguaztenean, hilaren 24an, Iturripen egongo dira; eta egubakoitzean, hilaren 26an, Seber Altuben jarriko dute mahai. Bi egunetan 18:00etatik 19:30era egongo dira.

MARGOLANEN ERAKUSKETA
Gaurtik, egubakoitza, hasita, hilaren 28ra arte Margo Taldearen erakusketak ikusgai egongo da Harresi aretoan. 35 lanetik gora batu dituzte.

GAZTE TXOKOAN, BIDEA
Datorren egubakoitzean, hilaren 26an, bideo emanaldia egingo dute Okendoko ludotekan. 17:30ean egin dute hitzordua.

LORE GAZTEAK TALDEA
Domekan, Lore Gazteak taldeak dantza ikuskizuna egingo du Amaia Udal Antzokian. 19:30ean izango da berau.

BALEEN GAINEKO ERAKUSKETA
Hilaren 30era arte zabalik egongo da Bizkaiko Golkoko izurdeen eta baleen gaineko erakusketa Monterronen. Anbar elkarteak antolatuta du.

AEDrenAGENDA

JON URRAZAREN BAKARRIZKETA, JAI ZALEN
Gaur, Jon Urrazak bakarrizketa ikuskizuna egingo du Jai Zale tabernan, 23:00etan. AEDk antolatu du, Kultur Errotaren bitartez.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Inarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Inarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Soldadutzaren kontrako ekintzak egin zituzten

Gose greban zeuden intsumisoei elkartasuna adierazteko hainbat ekintza egin zituzten. Hamar lagunek itxialdia egin zuten Udaltxean. Horrez gain, manifestazioa egin zuten jai giroan, trikitixa eta guzti. Sasoi berean, 108 arrasatear zozkatu zituzten soldadutzara joateko.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Gor"



Gorra. — Egundoko gorra ein jakon kontzertuan.

JON IRAEGI

HAUGIROA!

MINIMOA Zapatua, 13	5 °C
MAXIMOA Domeka, 14	12 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	100 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 10	11 °C	7 °C	55,8 l/m²
Eguena, 11	9 °C	8 °C	33,4 l/m²
Egubakoitza, 12	8 °C	7 °C	0,9 l/m²
Zapatua, 13	11 °C	5 °C	7,4 l/m²
Domeka, 14	12 °C	6 °C	2,5 l/m²
Astelehena, 15	8 °C	6 °C	0,3 l/m²
Martitzena, 16	10 °C	6 °C	- l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7

DANBAKA)))))))
DEBAGOIENENKO I. MUSIKA LEHIAKETA

Arrasate Irratian:
NEURE BAITAN (Arrasate):
zapatuan: 16.00
martitzenean: 20.00

ENBOSKADA (Arrasate):
domekan: 16.00
eguztenean: 20.00

Neure Baitanen doinu lasaiak eta saltoka jarriko gaituen Enboskadaren musika, 107.7an

Erritmo ezberdineko proposamenak asteburuan: folk doinuak zapatuan eta punk-Oi! estiloa domekan. Emanaldi biak arratsaldeko 16.00etan. Horrela bada, zapatuan, Neure baitan taldearen eskutik, Koldo Altunaren ahots gozoa, gitarra, biolina eta esku soinuaren melodiaz lagunduta entzungo ditugu; lasai-lasai egoteko musika beraz. Baina domekan, berriz, saltoka eta brinkoka jarriko gaitu Arrasateko Enboskada taldeak egiten duen musika zuzen eta biziarekin.

ASTEBURUKO GAINBEGIRATUAN
Horrez gain, astean irrastian izan dugunaren laburpena egingo dizuegu. Josu Velasko aretxaballetarrak Jerusalemara bizikleta gainean egindako bidaiaren kontakizuna berreskuratuko dugu. Oskar Aranak itzuli berri duen *Lotsaizuna* liburua ere ezagutuko dugu egilearen eskutik. Teleforo Monzon nor zen kontatuko digute Xabier Mendiguren idazleak eta Jose Luis Elkoro bergararrak. Guzti hori, 107.7an, 10:00etan.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ZAPATUA
10:00 Asteko gainbegiratua: Jose Luis Elkoroekin eta Xabier Mendiguren idazlearekin Teleforo Monzonen gainean...

16:00 Danbaka: Neure baitan.

DOMEKA
10:00 Asteko gainbegiratua.

16:00 Danbaka: Enboskada.

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00-11:00 IGO AUTOBUSERA!
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).
Elkarrizketak.
Zozketak, etab...

11:05 Musika

12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

12:20 Zorion agurren tartea.


12:30 Izarren ordua: abesti ezaugunak

13:00 Euskadi Irratiko albistegia.

14:00 IGO AUTOBUSERA! (errep.)

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

KALEINKESTA/ Udalatx barrutik harrixe atara gure daue. Ze pentsetan jatzu?




JUAN AMOZARRAIN
Erretiraue

Exigie bada harri nahikue ez dauela eta horren premiñe daukoule, ondo pentsetan jat Udalatx barrutik ataratie. Hori bai, egitekotan, ondo egin daixela, seguridade danakin.



MARI CRUZ ESTRELLA
Langillie

Geuri, herritarroi, kalte egitten ez badusku, ondo pentsetan jat. Udalatxetik harrixe ataratiegaittik iñor peligruen jarten ez badaue, eta danon probetxurako bada, ondo ikusten dot.




BEÑAT IRAZABAL
Ikaslie

Lotsagarrixte pentsetan jat Udalatx barrutik zuleketie. Gaiñera, AHTk be mendixe zulatu gure dau. Proiektu lotsagarri horrein gaiñien herritarrok berba egin biherko geuke.



SAGRA LOPEZ
Langillie

Asmo horren kontra nau zihero. Hori egittie bilddurtie. Gaiñera, AHTk be mendixe zulatu gure dau. Proiektu lotsagarri horrein gaiñien herritarrok berba egin biherko geuke.



BEÑAT BELATEGI
Ikaslie


Udalatx Mondragueko sinbolue da; hortik harrixe ataratie ez jat ondo pentsetan. Harrixen premiña haundixe badau, beste nunbaitetik atara biherko leukie. Jentiek ez dau onartuko.



AINHOA DIAZ
Langillie

Neuri txarto pentsetan jat. Mendixek apurketie txarto ikusten dot. Beste soluziño batzuk topau biherdie, ingurue errespetetan dauenak, nahiz eta garestixauek izen.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ARGITASUN FALTA Herritar batzuek esan digute udalaxearen atzealdeko zeharkale estalian, Udaleko oharrak jartzen dituzten lekuan, ez dagoela argi nahikorik. Horregatik, oso gaitza da han dauden interes publikorako oharrak irakurtzea. Han dauden argieki bombillak falta zaizkie aspalditik, eta ez ditu inork berriak ipini. Kontuan izanda ohar horiek duten interesa, konponbidea eskatu dute.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /6

KIROLA /9

KULTURA /12

Dirulaguntzen epea zabalik

Udalak datorren urterako dirulaguntzak eskatzeko epea zabaldu du, elkarte eta banakoendako.

Kalagorri, Iturripen

Mugarri Alkesa Saskibaloi Taldeak Kalagorriren aurka jokatu du bihar, zapatua, arratsaldean.

Gazte txokoaren urteurrena

Txatxilipurdik kudeatzen dituen gazte txokoek 10 urte bete dituzte. Ekitaldi mordoa antolatu dituzte.

ASTEKODATUA

545

BISITA IZAN DITU AUTOA KONPARTITZEKO WEB ORRIAK

Irailean, Udalak autoa konpartitzeko web orria jarri zuen. Dagoeneko orriak 545 bisita izan ditu. Bisitari gehienek ibarretik kanpo joateko konpartitu gura dute autoa.

BESTEKEKESANA

“Elkar hartuta, presoek sufritzen dutena eta guri sufriarazten digutena amaitu behar dugu. Nik ez diet

desiratzen ez Jose Antonio Ardantzari, ezta Juan Jose Ibarretxeri ere hainbeste urtetan sufriarazi digutena sufritzea. Nahikoa dela esango nieke. Presoak etxera ekartzearren elkartzeko besterik ez dut eskatzen. (...) Francoren garaian bost urte eman zituen semeak preso Puerto de Santa Marian. Harrez gero munduari bira eman diot. Orain, PSOEK boterea berriro hartu duen honetan, PPren garaian baino askoz okerrago gaude. Une txarren-txarreanean gaude”

JOSEPA ARREGI
‘GARA’/04-11-13

HERRITARRENBERBAK/ Aitor Zabalo



AEB

Hemen idaztea proposatu zidatenean, Arrasateri buruz idaztea eskatu zidaten (hori bai, askatasun osoa emanez nahi nituen gaiak jorrazteko, Arrasatetik kanpokoak ere). Gutxi gorabehera Arrasateri buruz idatzi izan dut. Oraingotan, mundu honetan, dena erlazonaturik dagoenez, Amerikako Estatu Batuei buruz idatzi nahiko nuke.

Egia da ez naizela han inoiz egon eta ez didala bereziki erakartzen hango bizitza estiloak, baina dudarik gabe zer egiten duten kontuan hartzen dut. Batik bat: gerra bat hemen, beste bat han, debeku bat... horrela ez dudalako uste leku onera goazenik, eta horri arduraz begiratzen diodalako.

Amerikarren eragina oso garbi ikusten da gasolinaren kasuan. Irakekoa hasi zenetik gasolinak gora eta gora egin du, eta horrek gure egunerokotasunean badu eragina.

Baina hori guri zuzenean

dagokiguna izanik, zer esango dute afganistandarrek, irakiarrek (oraintxe bertan Faluja erasotzen dabiltza), palestinarrek, eta abar. Guk ikusi ezin dugunak leku guztietan zer esana izango du.

Zergatik diodan guzti hori argi dagoela uste dut. Hauteskundeak izan berri dira, eta berriz ere presidente bera aukeratu dute. Oso zaila egiten zait ulertzea (europarrok ezin dugula ulertu entzun izan dut berrietan), baina azalpena bakarra entzun dut: beldurra-rena.

Bi gerratara eraman du bere herrialdea, ekonomikoki ere ez doa ondo, prestakuntza sozialei ez die mesederik egin... Eta oraingotan gainera tranpa kutsurik gabe irabazi du.

Zer eragin izango du horrek gudan (galdera hori munduko edozein lekutan egin daiteke)? AEBeko biztanleak konturatu dira horretaz?

Erromatarrak burutik eginda daude. Bai, Obelix, batzuetan arrazoia duzu.

“Gobernuak bi gerratara eraman ditu AEBak, ekonomikoki ez doa ondo, prestakuntza sozialak txarto...”

Arrasate
PRESS

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Jon Bereziar
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Imanol Elortza
Amaia Mundiñano

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereziar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ASTEABIHITZETAN

Guraso bakarrendako laguntza

Arrasateko guraso bakarrendako laguntza programa antolatu du Udalak. *Bidetxur* izena eman diote egitasmoari eta guraso bakarren beharrei aurre egitea izango da helburua. Bost hezitzailek gidatutako saioak izango dira eta arazo eta konponbideetaz berba egin ahal izango dute gurasoek, eguaztenetan Emakume Txokoan.

Gabon kantak Emakume Txokoan


Goikobalu abesbatzako emakumeek Gabon kantu ikastaro txikia egin zuten eguaztenean. Abesten gozatzeaz gain, euskal kantu tradizionalak aditzera eman gura dituzte lau saioko ikastaro horrekin. Eguaztenerako, hilaren 24a, ere egin dute hitzordua, 18:00etan. Eta abenduan ere jarraitzeko asmoa dute.

Elikadura eta osasunaren gaineko saioak

Eroski Taldea Fundazioak antolatuta, elikadura eta osasunaren gaineko hainbat berbaldi egingo dituzte. Monterron jauregian egingo dituzte hilaren 23 eta 24an. 16:30tan izango dira biak. Lehen berbaldian, Cristina Moreno irakasleak menopausia eta elikadura jorratuko ditu. Hurrengo egunean, berriz, Alberto Rodrigex medikua izango dugu hizlari, eta fibromalgiaren gaia landuko du.

Ekonomia eta emakumeak, berbagai

ESK sindikatuaren emakumeen sailak antolatuta *Emakumeak politika ekonomiko berrien aurrean* izeneko mintegia egin zuten eguaztenean Monterron jauregian. Hizlaria Paloma Villota ekonomilaria izan zen. Madrilgo Complutense Unibertsitateko irakaslea ere bada Paloma.

**Cante flamenko lehiaketa Al-Andalusen**

Asteburuan hasiko du Al-Andalus elkarteak cante flamenko lehiaketa. Bihar, zapatua, aurkezpena eta afaria besterik ez dituzte egingo, eta lehiaketa abenduan egingo dute. Antolatzailleen esanetan, gero eta kalitate handiagoko eskaintza lortzen dabilta.

**USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran****Arreta bideratu**

Joan den domekan, Batasunak agerraldi berezia egin zuen Anoetan. Zoritxarrez, ez dut azaldu zutena aztertzeke denborarik izan, baina badirudi gauza garrantzitsuak esan zituztela. Hala ondorioztatu dezakegu hainbat alderdi politikok egindako adierazpenengatik.

Kontua da premia handia dagoela ur geldiak mugitze-

ko. Denbora larregi daramagu egoera oso deserosoa sufritzen, eta badirudi ez diogula inoiz konponbiderik jarriko.

Zoritxarrez, Espainiako Gobernuak, kasu honetan PSEk, Anoetan esandakoaren oihartzuna estali gura du eta horretarako beste albiste bat sortu du. Horrela egiten zuen Aznarrek, eta hala egiten dute baita ere AEBeta-

ko agintariek: interesatzen zaienean, herritarren arreta beste nonbaitera bideratzen dute.

Hala egin dute hainbat alditan, batez ere Euskal Herrian, eta baita oraingoan ere. Astelehen gauean hamasei lagun atxilotu zituzten, horien artean gure lankide bat. Berdin die errugabeak diren ala ez. Aurrekoan hamabi izan ziren, eta gehienak kalean daude dagoeneko. Ba al dago eskubiderik?

ASTEKOIRUDIA

IKER BARANDIARAN

ARRASATEKO ERDI AROKO AZTARNAK IKUSTERA ETORTZEN DIRA ESKOLETATIK

Askok esan ohi dute Arrasate herri zaterra dela, eta jakin badakigu ibarrean Arrasate baino askoz herri politagoak, erakargarriagoak eta turistikoagoak daudela. Hala ere, Arrasatek, historiari dago-kionez, zelanbaiteko garrantzia dauka, eta Erdi Aroan zeresana izan zuen. Horra hor, esaterako, aste-

an egin dugun argazkia. Ume talde batek bisita gidatua egin zuen Arrasateko alde zaharrean, harresiaren aztarnak, jauregiak, udaletxea eta bestelakoak ikusten. Arizmendi Ikastolako Almen gume-koak ziren, eta Mankomunitateko lagun batek eman zizkien azalpenak. //I.B.


ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.


Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

Aretz**taberna***"Oilaskoak eta paellas eramateko"*

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

**EGUZKIGRAF****inprimategia****ARETXABALETA**

Industrialdea E-0-1
Telefonoa: 791844
Faxa: 792941



MASKARAK AZALDU DIRA KALEAN, ZERGATIK OTE DA?

A stean zehar konturatu gara herriko hainbat lekutan norbaitek maskarak jarri dituela. Gugana ez da azalpenak ematera inor etorri, baina maskara horiek izango dute zeresanen bat. Kontua da, herriko leku askotan zintzilikatu dituztela, gehienak Alde Zaharrean: Otalora kalean, Ferrerias kalean, Monterronen... Kontua da, maskara horiek ahoa estalita daukatela, eta gutxi gorabehera pentsa dezakegu zer esan gura duten. Guk atera ditugu gure konklusioak, bakoitzak atera ditzala bereak, gura baldin baduzue, jakina.



EGUN-PASA EDERRA EGIN ZUEN TALDETXXO HORREK, IPARRALDEKO BAZTERRAK EZAGUTZEN

J oan den urrian, argazkian azaltzen den koadrila horrek egun-pasa ederra egin zuen Iparralden. Hogeita lau lagun joan ziren, hamabi guraso eta hamabi seme-alaba. Argazkian hogeita hiru daude, baina Esteban falta da, argazkilaria lanetan ibili zena. Goizean goiz irten eta Larrunera joan ziren. Kremailera trenean ibili ziren, eta haize bortitza

bazebilen ere, goian bazkaldu zuten, etxola baten ondoan. Arratsaldean Sarako kobazuloetan izan ziren, eta ilunkeran Donibane Lohizunera joan ziren. Eguraldi bikaina izan zuten, baita ilunabarra ere. Itzutzerakoan, herriko elkarte batean afaldu zuten eguerdian jan ez zutena. Dagoeneko hasi dira hurrengo txangoa prestatzen, ala?



AURTEN ERE, MARKA EDERRAK ARRASATEKO PRESOEN ALDE

A rgazkian azaltzen direnak dira, goitik ezkerretik hasita: Josu Juan, Iban, Mikel, Haritz eta Jon. Eta behean ezkerretik hasita: Eneko, Ugutz, Matxin eta Harkaitz. Bederatzi lagun horiek Behobia-Donostian hartu zuten esku, Arrasateko presoek izenean. Eta, marka ederrak egin zituzten, gainera. Korrika egin ondoren bazkaltzera joan ziren, bazegoen-eta zer ospatu.



SAN ANDRESKO PARROKIAKOEK MEZA BEREZIA, SANTIAGON

S an Andresko parrokiakoez txangoa egin zuten azaroko lehenengo asteburuan Santiagon. Domekan, oinez joan ziren Monte do Gozotik katedraleraino, eta erromesen meza aipamen berezia egin zuten katedraleko kabildoak. Gainera, San Andresko parroko Jon Molinak, beste apaiz batzuekin batera, meza eman zuen. Santiagoko artzapezpiku Julian Barrio izan zuten gidari.

ZERBITZUAK/Sinadura elektronikoa erabiltzeko egitasmo pilotua abiaraziko dute

Sinadura elektronikoa probatzeko egitasmo pilotua

JON BEREZIBAR

Sinadura elektronikoa proban jartzeko egitasmo pilotua abiaraziko du Jaurlaritzak Arrasaten. Udalaren eta hiritarraren artean telematika bidezko harremanak izateko balioko du sistemak. Horretarako, liburutegiko bazkide txartel berria aterako dute.

Jaurlaritzak, Udalaren laguntzarekin, sinadura elektronikoa probatzeko egitasmo aitzindaria jarriko du abian. Udalaren eta herritarren arteko harremanak Internet bidez bideratzeko balioko du sinadura digitalak, ziurtagiri elektronikoa bat-edo izango litzatekeena. Euskal Autonomia Erkidegoan, Laudio eta Leioan ere egingo dute proba.

Izenpe izeneko enpresa arduratuko da izapidetzez. Horretarako, Arrasateren kasuan, liburutegiko erabiltzaileen datu basea hartu eta sinadura digitala darman txartela emango diete erabiltzaileei liburutegiko zaharren orde. Horretarako, NAREN fotokopia eta txartel zaharra eraman beharko dira Udal Liburutegira. Izan ere, datu base sistema berritzen ari dira uneotan Monterron jauregiko liburutegian, eta jasotzen duten informazioa Gasteiza bidaliko dute, Izenpe enpresara, bertan txartel digitalak egiten has daitezten.

Egitasmoa erabat berria da, eta etorkizunean administrazioaren eta herritarren arteko harremanak bideratzeko moduaren adierazgarri izatea da helburua. Etxeko ordenagailuen hedapena eta Internet erabiltzeko joera gero eta handiagoa kontuan hartuta, Jaurlaritza dagoeneko hasi da telematika bidezko administrazio



Liburutegiko datu basea baliatuko dute txartel berriak ateratzeko.

harremanak ikertzen. Arrasate izango da esperientzia berriaren lehen lekukoetako bat.

Txartel digitalaren erabiltzaileen zerrenda egiteko liburutegiko datu basea erabiliko dute

Norberak besterenezina eta bakarria izango den txartela izango du, berme guztiekin

IDENTITATE DIGITALA

Administrazioarekin izan ahal diren harremanak errazteko modua da egitasmo hori, Internet bitarteko delarik. Norberak besterenezina eta bakarria den sinadura digitala edukiko du, administrazioarekin eta udal zerbitzuetan erabili ahal izango dena. Datuen sekretutasuna eta segurtasuna bermatzea da Izenpe enpresaren helburua; azken baten, datu pertsonalak edukiko ditu txartelak, nortasunen ordekatzea saihesteko. Izan ere, identitate edo izaera digitala eskaintzen dio sinadura elektronikoko erabiltzaileari.

Arrasaten Udal Liburutegitik bideratuko da esperientzia pilotu hori. Bazkideei euren txartelak Izenpe erakundeak jaulkitakoengatik aldatuko dizkiete, eta, hortik aurrera, etorkizunean, administrazioaren izapideetan erabili ahal izango dira.

Udalari dirulaguntzak eskatzeko deialdia zabalik

J.B.

Datorren urterako dirulaguntzak eskatu gura dituzten banakako eta taldeentzako, hilaren 29ra arte egongo da eskaera deialdia zabalik. Guztira 19 programa egongo dira, lau taldetan banatuta.

Datorren urterako dirulaguntzak eskatzeko deialdia zabaldu du Udalak. Talde eta banakoek eskatu ahal izango dituzte dirulaguntza horiek, 19 programatan banatuta, eta eskaerak aurkezteko epea hilaren 29ra arte luzatu dute. Lau sail prestatu ditu Udalak programak aurkezteko: Euskara eta Kultura, Gizartea, Garapen Estrategikoa eta Aukea.

Aurkeztu behar diren dokumentuak zehazten ditu Udalak bere webgunean. Batez ere diru kopuru handiak eskatzen dituzten elkartei kontrol zorrotzagoa egingo diete, behar diren auditoriak eginda. Aurten ere puntuaketa programa baten bidez esleituko dira dirulaguntzak. Epeari dagokionez, joan den egubakoitzean ireki zuten epe berria eta 29an itxiko dute.

EUSKARA ETA KULTURA

Aurkeztutako 19 programetatik, zatirik handiena Euskara sustapenak eta Kulturak hartuko dute. Pakete handi horretan sartzen dira ikastetxe eta gurasoen elkartei ekintzak egiteko laguntzak, euskara sustatzekoak, euskaltegi nahiz akademiak, eta beste hainbat.

Talde horretaz gain, Gizarte Sustapenerako sailean ere eskatu ahal izango dira datorren urterako laguntzak. Kasu horretan, erretiratuek, espesietan presoak dituzten senideek, udal tasak ordaintzeko zailtasunak dituztenek, gobernuz kanpoko erakundeek, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lantzen duten proiektuek eta gazteentzako ekintzek jasoko dituzte dirulaguntzak.

Hirugarren saila Garapen Estrategikoari dagokiona da, ingurumenarekin zerikusia duten jarduerak garatzeko. Azkenik, kirola dago. Taldeek ohiko jarduera finantzatzeko eta baita ekintza bereziak aurrera eramateko ere jasoko dituzte dirulaguntzak. Kasu horretan, Aukea izango da kudeatzailea.



Hilaren 29ra arte luzatu du Udalak dirulaguntzak eskatzeko deialdia.

LABUR

ATECEk datorren zapatuan egingo duen urteurren batzarreko izenematea zabalik

Datorren zapatuan, hilaren 27an, garun kalteak eragindakoen elkarteak, ATECEk, 10. urteurrena ospatuko du Lasarte-Orian, Manuel Lekuona auditorioan. Arrasatetik ere joango dira elkarteak kideak. Hala ere, joan nahi duenak aurrez eman beharko du izena 943 48 25 83 telefonora deituta. Era berean, bazkaria egingo dute batzarren ostean; horretarako, elkarteak kontu korrontea ireki du, aurrez ordaintzeko. Hilaren 27an ospatuko dute urteurrena, mediku eta adituekin, eta berbaldiak egingo dituzte.

Azoka, Okendo eta Mondragones kaleak egokitzen Gabon ostean hasiko dira

Gabon ostean hasiko dira kale horietan egokitze lanekin. Hala ber, egokitapenez gain, aldatetako ere proposatzen dira kaleetan. Udalaren asmoa da oinezkoen lehentasuna ematea, eta hori alde zaharraren luzapen bat izan daiteke, neurri batean. Lanak Construcciones Moyua enpresak egin ditu, eta 1.050.000 euroko aurrekontua dauka.

Ikasleen nazioarteko eguna

Ikasle Abertzaleak taldeak deituta manifestazioa egin zuten ikasleek eguaztenean, euskal eskola nazionala eskatzeko.

Era berean, Ikasle Eguna ospatuko dute Villabonan bihar. Egitaraua zabalda da eta kontzertuak, ekitaldiak eta beste makina bat gauza antolatu dituzte karpá erraldoian. Sarrerak aurrez erosi ahal izango dira 12 euroren truke, eta hara joateko autobusa antolatu dute Arrasatetik. Bai autobuseko txartela eta baita jaialdirako sarrerak ere salgai daude Irati tabernan. /J.B.





Web gunea bisitatu duten gehienek Debagoienetik kanpora joateko konpartitu gura dute autoa.

INGURUMENA/ Autoa konpartitzeko programa abiarazi zuen irailean Udalak

Erantzun ona dauka autoa konpartitzeko programak

JON BEREZIBAR

Ingurumen Sailean "pozik" daude autoa konpartitzeko egitasmoak izandako erantzunarekin. Eskaera eta eskaintza kudeatzen duen web orriak 545 bisita izan ditu irailetik hona. Bisitari gehienek ibarretik kanpora joateko konpartitu gura dute autoa.

Irailean abiatu zuen Udalak Arrasaten autoa konpartitzeko egitasmoa. Udala pozik dago programak izan duen harrerarekin,

hori esan digu Ingurumen Saileko teknikari Nerea Lazpiurrek. Udaleko web orriaren bitartez kudeatzen da zerbitzu hori eta lehen hilabeteetan 545 bisita izan ditu. Bertan jendeak euren eskaerak eta eskaintzak ipintzen ditu eta, ondoren, Kataluniako enpresa batek ahal den neurrian batzen ditu biak. Bisita gehienak urrian izan dira, 357 hain justu ere, nahiz eta hauen %72 errepikatutakoak izan diren. Irailean, programa martxan ipini zen hilabeteetan, 188 izan ziren erregistratutako bisitak, gehienak ere errepikatuta.

BAILARATIK KANPORA, BATIK BAT

Erabiltzaileei dagokienez, gehienek Debagoienetik kanpora joateko konpartitzen dute autoa, Gasteizera batik bat. Hala ere, bailara barruko ibilbideak egiten dituztenek ere erabili ahal dute zerbitzua, baina bidaiak laburretarako gehiago kostatzen dela adierazi digu Nereak.

Emaitza orokorreki dagokienez, urte amaierarako emango dituzte jakitera, hau da, zenbat bisita izan dituen web orriak eta horietatik zenbatek erabaki duten autoa konpartitzea.

Tratu txarren aurkako gizonen taldea aurkeztu dute

J.B.

Tratu txarren aurkako plataformaren barruan, partaide diren gizonen taldeak gizonak inplikatzeko deialdia egin zuen martitzenean. Hala, sinadura batzea hasi eta gizonen manifestua kaleratu dute.

Martitzenean aurkeztu zuten jendaurrean emakumeen aurkako tratu txarren kontrako gizonen taldea. Pasa den astean herri plataforma ezagutarazi ostean, oraingo astean taldeko gizonek gizonen zuzendutako deialdi berezia egin gura izan dute.

Gizonezkoen inplikazioa bilatzen du taldeak, "gizonok gizonoi hobeto entzuten diegulako", taldekoen esanetan. Horretarako hainbat talde eta lanbidetako gizonen atxikipena izan zuten martitzeneko agerraldian: talde politikoak eta kulturalak, sindikatuetako ordezkariak, kirolariak, gazte taldeak eta beste hainbat herritar.

Helburu garbi batekin egin zuten deialdia Arrasateko gizonen: "Euren pentsamoldea aldatuz, gainontzeko gizonak aldatzea". Gizonen taldearen ustetan gene-

ro rolak berrikusi egin beharko liriteke, bai familian, lagunekin zein lanean eta irakaskuntzan. Deialdiarekin, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei elkartzuna agertu gura izan zieten. Era berean, helburu horiek guztiak bakar baten biltzea proposatu zuten: "Eztabaida plazaratzea".

GIZONAK MUGIARAZTEA

Taldea orain dela hilabete batzuk hasi zen biltzen, Udaleko Emakume Sailak deitutako tratu txarrak salatzeko kale agerraldietan. "Gizarte osoari eragiten dion arazoa izan arren, beti jende bera biltzen ginela konturatu ginen", eta, horregatik, gizonen inplikazioa bilatze aldera, martitzenean aurkeztutako talde hori sortu da. Ekintzekin hasteko, sinadura biltetari ekin diote eta taldearen nahiak azaltzen dituen manifestua kaleratu eta zabaldu egingo dute. Uneotan taldeak jarraipena izatea du epe motzeko helburu, "emakumeen aurkako edozein erasoren aurrean erantzuna izateko".

Hurrengo agerraldia hilaren 25ean izango da, Emakumeen Tratu Txarren Kontrako Nazioarteko Egunean, hain justu ere.



Herriko hainbat talde eta alderditako gizonen sinatu dute manifestua.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



XABIER URTZELAI

Bi kapitainek ondo ezagutzen dute elkar, dagoeneko derbi asko jokatu dituzte-eta elkarren kontra.

FUTBOLA

Ruben eta Eriko: "Bi taldeek daukaguna emango dugu derbian"

Mondrako eta UDAko kapitainekin elkartu gara, biharko derbiaren gainean berba egiteko

XABIER URTZELAI

Mondrako kapitain Rubenek eta UDAko kapitain Eriko-k hamaika urte egin dituzte talde nagusian. Derbi asko jokatu dituzte elkarren kontra, eta, alde horretatik, aurtengoa ez da berezia. Hori bai, urtero bezala, daukatena ematera zelairatuko dira bi taldeak.

Mondrak eta UDAk derbia jokatuko dute bihar (15:30ean, Atxabalpen). Eta, derbi horren gainean berba egiteko bi taldeetako kapitainekin izan gara. Derbiaren gainean berba egin aurretik, baina, ibarreko taldeen gainbegiratu egin dute bi kapitainek. Ruben hasi da berbetan: "Aurre-denboraldian uste nuen Aretxabaleta zela talde makalena, eta ikusi nola dabilen. Mondrari dagokionez, egia da gorago egoitea espero nuela, orain ditugun puntuak baino gehiago izango genituela uste nuen". UDAko kapitain Eriko-k ere ez zuen uste horren ondo ibiliko zirenik: "Atzealdean bi jokalarri garrantzitsuk utzi dute taldea, baina orain jokatzen dutenek oso maila ona erakutsi dute. Eta, gazteek ere oso ondo erantzun dute".

UDA MONDRA BAINO HOBETO

Sailkapenari begiratuta, argi dago Mondrak UDAk baino behar handiagoa daukala. Aretxabaleta-ko bosgarrenak dira sailkapenean eta Mondra hamalagarrena da. Ruben hasi da berbetan: "Argi dago guk ezin dugula galdu, hurrengo bi partiduak ere oso gogorak izango direlako. Datoren asteen Pasaiaren zelaira joango gara, eta hurrengoan EHUko taldea izango da Atxabalpen.

Beheko postuetan gaude, eta bihar irabazi egin behar dugu".

Eriko-k ere argi dauka Mondrak hiru puntuen behar handiagoa daukala: "Hemen ez dago inor puntuak oparitzen ibiltzeko moduan, baina eurek dute behar handiagoa. Guk lasaitasunez joka dezakegu derbia. Horrek ez du esan gura daukaguna emango ez dugunik; esan gura dudana da lasaigo joka dezakegula, gutxi daukagulako galtzeko eta asko irabazteko. Arrasateko taldekoak urduriago ibiliko dira.

Aretxabaleta taldea nola dagoen ere azaldu digu kapitainak: "Joko aldetik ondo gaude, eta badirudi jokalarri batzuek dopina hartu dutela, sekulako sasoiaren daude-eta. Horrez gain, derbi-rako taldea oso motibatuta dago". Rubenek ere esan beharrekoa oso argi dauka: "Irabazi egin behar da, bai edo bai. Gainera, joan den

denboraldian euren etxean sekulako jipoia eman ziguten, eta bada garaia horri buelta emateko...". Hori esan eta berehala erreakzionatu du Eriko-k: "Gure taldea nola dagoen ikusita, joan den urtekoaren errebantxa hartu gura baduzue, jai daukazue".

MIN HARTUTAKO JOKALARIAK

Kontu horri dagokionez, UDAk alde nabarmena dauka, Mondrak min hartutako jokalarri asko ditu-eta. Eriko-k harriduta geratu da Mondrak min hartuta zenbat jokalarri dituen jakin duenean. Ruben ere ez ei dago errekuperatuta, nahiz eta minutu batzuk jokatze-ko esperantzaz dagoen. Horren gainean berba eginez amaitu dugu solasaldia. Eriko: "Ea zaturako errekuperatzen zaren!". Ruben: "Ea, gutxienez, hamar minutu jokatzen ditudan, ostikadaren bat edo beste emateko!"

Kontrarioaren gainean...



RUBEN RUEDA

Momentu honetan UDA fisikoki oso talde indartsua da, eta bolada onean dago. Ez dakit non egin diezaiokegun min, eurek baino gogo handiagoa jartzen badugu min egingo diegu, hori seguru. Emaizari dagokionez, 1-0 irabazi, eta itxura ona emanda.



ERIKO GARCIA

Nik uste dut Mondraren alde egon daitekeela derbia irabazteko daukaten gogo. Hala ere, jokalarri asko dituzte min hartuta, eta aurrealdean kale egiten dutela esango nuke. Guk ere itxura ona eman gura dugu. Emaizari dagokionez, 1-2 gure alde.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

Abokajarro - Manhattan Pippol.	7-5
Betrayer - Dribling.	4-6
HLB 108 - Ekipto Aldeano.	6-5
Irati Taberna - La Kuadrilla.	14-6
Billy & The Cowboys - Lasagabaster.	1-2
AT Celaya - AC Surcos.	4-6
You Know! - Iriztu.	3-10
Torpedo Musakola - Fuxion.	6-0
Tomahawk - Saukelu Scream.	3-4
Goma2.	Deskantsua

PARTIDUAK

AZAROAK 20, ZAPATUA. EPAILEAK

11:00: Billy & The. - Ekipto Aldeano. **Antola.**

12:00: Manhattan - Lasagabaster. **Antola.**

13:00: AC Surcos - Saukelu Scream. **Antola.**

SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA	P	J
1. AS Surcos.	8	4
2. HLB 108.	8	4
3. You Know!.	6	4
4. Goma2.	6	3
5. Irati Taberna.	6	4
6. Saukelu Scream.	6	3
7. Lasagabaster.	5	4
8. Betrayer.	4	3
9. AT Celaya.	4	4
10. Iriztu.	4	3
11. Ekipto Aldeano.	3	4
12. Dribling.	3	4
13. Torpedo Musakola.	3	4
14. La Kuadrilla.	2	4
15. Billy & The Cowboys.	2	4
16. Abokajarro.	2	4
17. Tomahawk.	0	4
18. Fuxion.	0	4
19. Manhattan Pippol.	0	4

HASI DA KOPA TXAPELKETA

ORAINGO ASTEBURUAN HIRU PARTIDU BAKARRIK JOKATUKO DITUZTE

Oraingo jardunaldian ez da Liga Txapelketarik izango, Kopa hasiko dute-eta. Baina talde gehienek deskantsua izango dute, sei taldek baino ez dute-eta jokatuko bihar. Kontua da Kopa Txapelketa final-zortzirenetan hasiko dutela, eta horretarako hamasei talde behar dira. Txapelketa 19 talde daudenez, horietako sei taldek —zozketa bidez erabaki dira— lehenengo kanporaketa modukoak jokatuko dute. Hala, sei talde horietatik hiru sailkatuko dira, eta horiek jokatuko dituzte final-zortzirenak, gainontzeko hamahiru taldeekin batera.

Ligaren eta Koparen artean badaude ezberdintasun batzuk: Ligan taldeek egiten dituzte epaile lanak, baina Kopan antolatzaileek egingo dute lan hori. Eta, atezainei dagokionez, jakin, jokalariek baloia hankarekin ematen badiote, atezainak ezin izango duela baloia eskuekin hartu, Ligako bigarren fasean gertatzen den moduan.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondra - UDA

Preferentea. Zapatuan. 15:30. Atxabalpen.

Anaitasuna - Mondra

Ohorrezko Gazt. Zapatuan. 15:30. Azkoitian.

Arrasate CD - Amaiak Bat

Gazteak. Zapatuan. 11:00. Atxabalpen.

Lagun Onak - Arrasate

Ohor. Kadeteak. Zapatuan. 09:30. Azpeitian.

Bergara - Arrasate

Infantilak. Domekan. 12:00. Ipintzan.

Mondra - Ilintxa

Emakumeak. Domekan. 11:00. Atxabalpen.

SASKIBALOA

Mugarri Alkesa - Alkesa

Lehen Maila. Zapatuan. 18:00. Iturripen.

Hernani - Mugarri Alkesa

Kadeteak. Zapatuan. 16:30. Hernanin.

ESKUBALOA

Leitzaran - AGR Arrasate

Lehen territ. Zapatuan. 17:30. Andoainen.

Arrasate - BKL CAF

Bigarren territ. Domekan. 11:30. Beasainen.

Hondarribia - Gatz Museoa Jakion

Gazteak mut. Zapatuan. 18:00. Hondarribian.

Arrasate - Legazpi

Gazteak nesk. Zapatuan. 18:00. Musakolan.

Arrasate - Egia

Infantilak. Domekan. 10:00. Iturripen.

PILOTA (GIPUZKOAKO TXAPELKETA)

Gurrutxaga - Lazkano

Seniorrak. Gaur. 20:00. Zaldibian.

EMAITZAK

ESKUBALOA

Lehen territ. AGR Arrasate - Ormaiztegui. 28-21

Bigarren territ. Pulpo - Arrasate. 27-24

Gazteak mut. Zarautz - Gatz Museoa. 29-27

Gazteak neskak. Arrate - Arrasate. 35-2

Infantilak. Oarsoalde - Arrasate. 27-4

ERRUGBIA

Euskadiko Txap. Zarautz - Arrasate. 38-0

FUTBOLA

Preferent. Touring - Mondra. 3-0

Ohor. Gazt. Mondra - Euskalduna. 2-1

Gazteak. Orioko - Arrasate. 14-1

Ohor. Kadet. Arrasate - Aldapetarrak. 3-2

Emakumeak. Bergara - Mondra. 2-2

Infantilak. Arrasate - Ondarroa. 1-3

SASKIBALOA

Aspaldiko bi ezagun, Mugarri Alkesa eta Kalagorri, hil edo bizikoak diren puntuen bila

Gorka Zurututzaren mutilek badakite errioxarren kontra jokatzera zer den; ez dute uste norgehiagoka ikusgarria izango denik

XABIER URZELAI

Kalagorri taldea ez da Arrasatekoendako ezezaguna. Badakite errioxarren nola jokatzaren duten, eta zertaz baliatzen diren partiduaren erritmoa hautsi eta kontrarioa zorabiatzeko. Badakite epaileen erabakiei etekina nola ateratu; hortxe dago errioxarren arriskua.

Ligako lehenengo itzulia amaitzeko hiru norgehiagoka baino ez dira geratzen, eta Mugarri Alkesak partidu bakarra irabazi du. Datu horiekin, esan gabe doa Arrasatekoak azkenak direna sailkapenean, baina Gorka Zurututzaren mutilek bihar dute hori aldatzeko aukera (18:00etan, Iturripen). Aurrean, sailkapenean erdi-erdian dauden Kalagorrikoak izango dira, aspaldiko ezagunak. Mugarri Alkesako jokalaria Jagoba Gamarrak eman digu errioxarren berri: "Arriskutsuak dira, gogor jokatzaren dutelako. Alde horretatik ez dut uste norgehiagoka ikusgarria izango


denik, ondo dakite-eta partiduaren erritmo bizia apurtzen".

Esan beharra dago Errioxako taldea abila dela epaileak endrekatzen, eta euren etxean gaitza izaten dela irabaztea, publikoa gain-gainean egoten delako: "Etxetik kanpo ez dira etxean bezain arriskutsuak, baina argi ibili beharko dugu".

"TALDEA GORA EGITEKO GAUZA DA"

Jagobak argi dauka taldea bolar txarrean dagoela, eta Liga hasieran ez zuen uste horren behean egongo zirenik. Ligaren jarraipena egiten dutenen esanetan, Mugarri-Alkesak Ligako bosteko onenetakoa dauka: "Argi geratu da, baina, talde ona izatea ez dela nahikoa, ondo jokatzera da garrantzitsua. Egia da, baina, ez dugula batere zorterik izan, eta min hartutako jokalariei asko ditugula, gehiegi".

Horren harira, Kintana entrenatzen ere ez da hasi. Jagoba Gamarra ere ez da erabat erreperatu, eta Alarcia zigortuta dago; taldeak errekurtsioa aurkeztu du.



XABIER URZELAI

Arrasateko zaleek argi egon beharko dute, biharko partiduan egongo da-eta zeren gainean protesta egin.

"Ormaiztegi irabazi eta gero, Leitzaranen kontra ezin dugu galdu"

X.U.

AGR Arrasate taldeak Leitzaranen kontra jokatu du bihar (17:30ean, Andoainen). Arrasateko taldeko entrenatzaile Andoni Arandok zera adierazi du partiduaren gainean: "Ezin duguna egin da kontrario gogorrenei irabazi, eta makalenen kontra galdu".

AGR Arrasate hirugarrena da sailkapenean. Bidasoa da liderra, eta Donibane dago bigarren postuan, Arrasateko taldeak duen puntu kopuru berarekin: "Oraingo asteburuan, baina, bi talde horiek elkarren kontra jokatu behar dute, eta hortxe daukagu bietako bati aurreratzeko aukera. Esango nuke Bidasoak irabaziko duela, eta Donibane atzean uzteko gauza izan behar dugu. Joan den astean partidu garrantzitsua irabazi genuen Ormaiztegiaren kontra, eta talde hori atzean utzita, orain ezin dugu kale egin".

Horretarako, baina, behar-beharrezkoa izango da Andoaingo Leitzaran taldeari irabaztea: "Ez da kontrario gogorrena, baina joan den urtean ere han galdu genuen Ligako lehenengo partidu. Horrelakoak egiten ditugu



ARRASATE PRESS

Andoni Arando: "Leitzaran ez da kontrario gogorra, irabazteko gauza gara".

guk, kontrario gogorrenei irabazi, eta gero, horrelako partiduak galdu. Alde horretatik, oraingo astean saiatu naiz jokalariek motibatzen, biharko partidu irabazteko da-eta".

IGOERA FASERAKO SAILKATZEA

Hori da Arrasateko taldeak duen lehenengo helburua, gero igoera fasean aurrera egiteko. Igoera

fasea jokatzeko lehenengo bi taldeak sailkatuko dira. Horrek esan gura du kale egiteko tarte txikia dagoela, kontrarioek berehala egiten dute-eta aurrera.

Eta, Arrasateko entrenatzaileak ondo daki norgehiagoka errazten egon behar duela taldearen gain-gainean, kontrarioa gogorra denean ez dago-eta inor motibatu beharrik.

Euskadiko Txapelketarako sailkatzeko lehian

X.U.

Gipuzkoako Txapelketari dago-kionez, ezin esan Arrasateko pilotariak lan txukuna egin dutenik. Arrasateko bikoteka dituen bi ordezkariak txapelketatik kanpo geratu dira, eta senior mailan buruz burukoak jokatzaren dabilen Lazkano pilotaria da *bizirik* dagoen bakarra.

Arrasatekoak lehenengo fasea gainditu zuen, baina joan den astean Oinatz Gonzalezen kontra galdu eta gero (22-14), Lazkano finalerako sailkatzeko aukera barik geratu da: "Lehen ere bane-kien gaitza izango zela finaleraino iristea, horretarako, jokatzeko

nituen partidu guztiak irabazi beharko nituelako". Gipuzkoako Txapelketan finalerako sailkatzeko aukerarik ez badauka ere, Lazkanok Euskadiko Txapelketarako sailkatzea du helburu: "Euskadiko Txapelketarako lehenengo lau pilotariak sailkatuko dira, eta geratzen diren hiru partiduetan helburu hori lortzeko lehiatuko naiz".

Oraingo asteburuko norgehiagoka gaur, egubakoitza, jokatu du (20:00etan, Zaldibian): "Gaurko kontrarioa da Gurrutxaga, geratzen zaizkidanetatik aurkari gogorrena. Gurrutxagak badaki Gipuzkoako txapelduna izatea zer den".

ERRUGBIA

Arrasatek bi aste izango ditu Zarautzen kontrako porrotaren gainean hausnartzeko

Arrasate Errugbi Taldeko nagusiek deskantsua izango dute oraingo asteburuan, eta datorrenean ez dute Euskadiko Mailako Txapelketa jokatu, Gipuzkoako Ligan jokatu dute. Horrenbestez, abendura arte ez dute maila gorenean jokatu. Eta, ordura arte nahiko denbora izango dute joan den astean Zarautzen kontra gertatu zenaz hausnartzeko. Arrasatearrak ez ziren pozik itzuli Zarautzik (38-0). Zarautzen galdu eta gero, David Jauregiren mutilak azkenak dira sailkapenean. Datorren astean Hernaniren kontra jokatu dute, eta Gernika etorriko da gero.

BOTEPRONTUEN

Tobias Hernandez Nieto

MEHER ARROPA DENDA

XABIER URZELAI

Tabernarixe izendakue, negozio propioe zabalketie pentsau euen Tobiasek, eta, hola, artilliekin egindeko arropak saltzen hasi zan. Taillerra eta guzti euen, baiñe harek ez euen aurrera egin, eta oingo arropa dendie zabaldu euen. Hogeita bi urte egin dau Meher arropa dendiek.

Badakitzu ze dan barra atzien lan egittie; nun hobeto, tabernan ala dendan?

Diferentiek die, baiñe gureu dot dendan lan egin. Batez be klientiengaittik. Tabernan be gustora egoten nitzen, baiñe apurtxo bat edanda etorten zana... Hori aguantau egin biher zan.

Ze lan egitten dozue dendan?

Meher dendan umiendako, gaztiendako eta nagusixendako arropak daukou, bai gizonezkuendako eta baitte emakumiendako be.

Eta ze saltzen da gehixen?

Emakumien arropak da gehixen saltzen dogune, emakume gaztienak.

Auzokuek izengo die kliente inportantienak, ala?

Bai. Honezkero kliente fijuek daukou, eta euri esker egitten dogu aurrera. Inportantiena da horreik klientiok zainketie.

Herritarrok gerueu eta gehixau jueten gare kanpora arropak erostera.

Bai, hori egixe da. Oin dala urte batzuk egin euen inkesta bat, eta resultaek esaten euen Mondragueko jentie Vittorixara jueten zala arropak erostera. Gero euzen Bilbo eta Donostia. Egixe da kanpora asko jueten garela.

Eta, zelan egin aurre horrei?

Ahal dan moduen, eta gehixenetan bastante larri. Lehen, San Andres auzuen zazpi denda inguru euzen, eta oin bi denda gauz. Atara kontuek.

Ze ofrezidu leike denda txiki batek haundixek ez dauena ofreziduten?

Trato pertsonalaue. Hona etorten dana ataraten dutzou gure



"Mondraguen punta-puntako komertziue dau; edozein hirittan dauena besteko ona da hamengue"

dauen arropie, aholkuek emuten dutzou, zer geraketan jakon ondo eta ze ez... Horreik danok denda haundixetan ez dozu topetan. Eta esan biher dot, gaiñera, Mondraguen daukoun komertziue punta-puntakue dala; edozein hirittan dauena besteko ona da hamengue.

Zelan janzten gare Mondraguen?

Esango neuke jentie informal janzten dala. Kalien gatxa izeten da jentie oso elegante ikustie, baiñe Maritxu Kajoi egunerako edo bodarako danielen oso ondo janztie gustetan jaku.

Lanien, zerek egitten dutzu begixetan min?

Gaur egun dauen saltzeko sis-

"Gaur egun dauen saltzeko sistemie ez jat bape gustetan. Arropie saltzeko ez dau denporarik"

temie ez jat bape gustetan. Dana die ofertak, deskontuek... Denda haundixek arropak berehalaxe saldu biher daue, eta bestiok ez dogu denporarik eukitten. Horrek emuten dust amórrue.

Lana alde batera itxitte: deskonektetako leku bat?

Hamen inguruen daukoun mendixetara juetie gustetan jat: Kurtzebarrire, Muru ingurure, Urkulure be oso gustora jueten naz. Oso paraje polittek daukou inguruen.

Ze falta jako Mondragueri?
Jentie engantxetako zerbait, kanpora juen ez daixen.

Eta, ze falta jatzu zeuri?
Gaztie izetie!!!

NIREBIDAIAHURA/ Nerea Makazaga

Indiara eta Nepalera / 2003ko abuztuan eta irailean


Nerea eta Iker taxian utzi genituen joan den astean: "Maharaja aberatsenen moduan ibili ginen, taxia hamaika egunerako alokatu genuen-eta. Gezurren bidez saldu ziguten taxiaren kontua, baina ez ginen gaizki ibili, hango trenak eta autobusak ez dira-eta oso fidagarriak. Eta, taxi hartan ibili ginen montzoiak apurtutako errepedeetan gora eta behera. Halaxe iritsi ginen Rajastan-era, lehen-go erregeen eta oraingo behartsuen lurraldera. Eta, gero ezagutu genituen Delhin dagoen Gandhi hil zuten etxea, Jasalmer-ko Urrezko Hiria, Jaipur hiri arrosa eta Jodpur hiri urdina, Thar-eko basamortua... Eta, ezin aipatzeke utzi Taj Mahal tenplu ezaguna eta arratoien tenplua".

Arratoien tenpluarekin harrirta geratu ziren Nerea eta Iker: "Karni Mata basamortuko hiri txiki batean dagoen tenplu nazkagarria da. Baina nazkagarritasun horrek egiten du erakargarri, are eta gehiago oinutsik sartu behar dela jakinda. Hamar mila arratoiren kiratsak egin zigun ongietorria, edozein lekutan azaltzen ziren, eta jendeak jaten ematen zien".

Ez zen hori izan, baina, Nerearen eta Ikerren oroimenetan tatuatua geratu zena: "Varanasi izan zen ezagutu genuen leku bereziena, Ganges ibai sakratuaren hiri. Indiar guztien ametsa da euren errautsak ur horietara botatzea. Horrenbeste mirariren sortzaile den ibaia, ordea, famatu da munduko kutsatuenetakoa delako. Bertara botatzen dituzte errautsak eta hildakoen gorpuak, bertara botatzen dute gorotza eta zaborra; eta bertatik edaten dute indiarrek, edari miragarria delakoan".

Varanasin, baina, bazirudien jendeak usaindu egiten zuela gure bikotekidearen dirua: "Esango nuke gure azal zuriak diru usaina zeukala. Ume batek argazki bat ateratzeko eskatzen bazigun, dirua lortzeko bide bat zen. Norbaitek erlijioaren edo kulturaren gainean berba egiten bazigun, ez zen bere herriaren ondare kulturala erakutsi gura zigulako. Han ez du inork debalde laguntzen".

XABIER URZELAI



Taj Mahal tenpluari ateratako argazkia.

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ZINEMA-MUNDUKO SUKURTSAL BAT

Film-giroko tratu bat Protagonista bat: zu zeu. Zatoz.

LAGUN ARO FILMS



▷ 23A

24



▷ 24 A

25



▷ 25 A

26

Berrikuntza guztiak, ordutegi berri eta zabala, eta zerbitzurik onena, zu zeure eta zure familiakoen lasaitasuna segurtatzeko pentsaturik.



24



▷ 24 A


25



▷ 25 A

26

Lagun Aro Arrasate
Otalora I
☎ 943 79 20 77

 **LAGUN ARO**
SEGUROS - ASEGURUAK
Beti zugan pentsatzen



AED ELKARTEA

Jokin Zaitegi zenaren izenak gero eta ospe handiagoa hartu du sariketa horri esker.

Abian da Jokin Zaitegi Sariketa, eta iazkoaren itzulpena aurkeztu dute

IKER BARANDIARAN

AEDk Jokin Zaitegi Sariketa abiarazi du. Literaturako Nobel saridun Elfriede Jelinek eleberrri bat itzuli beharko dute. Bestalde, gaur aurkeztu dute Coetzeeren liburuaren itzulpena.

Jokin Zaitegi Sariketarak izen handia hartu du. Orain dela hiru urte itzulpen sariketa hori aldatu egin zuten, eta Elkarlanean argitaletxearen laguntzarekin Nobel saridunen liburuaren itzulpenak argitaratzen hasi ziren. Dagoeneko Imre Kertesz-en eleberrri bat itzuli dute eta *Zoririk ez* liburua kaleratu dute. Aurten, berriz, 2003ko Literaturako Nobel saria jaso zuen John Maxwell Coetzeeren *Disgrace* liburua euskarara itzulita kaleratuko dute. Oskar Arana aramioarrak irabazi zuen lehiaketa eta horregatik berak egin du lan hori. Liburuari *Lotsaizuna* izena jarri diote.

GAUR AURKEZTU DUTE LIBURUA

Gaur, egubakoitza, aurkeztu dute liburu hori Donostiako Doctor Camino liburutegiko aretoan. Idazleaz gain, AEDko, Elkarlanean argitaletxeko eta Kutxako ordezkariak eta epaimahaiko kide Patxi Ezkiagak esku hartu dute. Abenduaren hasieran, Arrasa-

ten beste aurkezpen bat egiteko asmoa dute. Are gehiago, Aranak eta lagun batzuek literatura emaldia egingo dute, musikaren laguntzarekin, hainbat testu ingelesez eta euskaraz irakurrita.

ELFRIEDE JELIN AUSTRIARRA

2004ko Literaturako Nobel sariduna aditzera eman dutenez, abian dago XVIII. Jokin Zaitegi Sariketa. Elfriede Jelin austriarrak jaso du aurten Nobel saria. 58 urteko idazle horrek ibilbide handia egin du orain arte. Hain-

Gaur aurkeztu dute Oskar Aranak egindako itzulpena. 'Lotsaizuna' izena jarri diote

Aurtengo sariketan, Elfriede Jelinek eleberrri bat alemanetik itzuli beharko dute

bat eleberrri eta zenbait antzezlan idatzi ditu. Horren lanetako askok kutsu feminista dute, eta idazleak berak menderakaitz ospea hartu du. Horrez gain, bere liburuetan oinarrituta, hainbat film egin dituzte. Ezagunena, *La pianista* lan gordina.

AEDk eta Elkarlanean argitaletxeak Jelinek *Die Leibhaberinnen* liburua aukeratu dute aurtengo sariketarako. Interesatuek liburu horren lehenengo lau orrialdeak euskaratu beharko dituzte, eta egindako lan horren hiru kopia bidali beharko dituzte AEDra (Pablo Uranga 4 behean), abenduaren 15a baino lehen.

Lau orrialde horiek alemanez eskuratu ahal izango dira AEDra edo Elkarlaneanera eskatuta. Baita ere honako helbidean: www.elkarlanean.com/jokin-zaitegi.

Epaimahaia Urtzi Urrutikoetxeak, Edorta Mataukok eta Maria Colerak osatuko dute. Horiek aukeratutako itzultzaileak 3.200 euroko saria irabaziko du *Die Leibhaberinnen* eleberrria osorik itzultzeko. Diru erdia hasieran emango zaio, eta beste erdia lan osoa entregatu ostean, 2005eko irailaren 1ean. Argitaletxeak liburu hori 2005eko Durangoko Azoka baino lehen kaleratuko du.

'Collateral', Koreako film bat eta 'Ilargiaren sekretua'

I.B.

Datozen egunetan, hiru film emango dituzte: Tom Cruisen *Collateral* filma, Koreako *Primavera, verano, otoño...* eta umeendako egin duten *Ilargiaren Sekretua* lanaren estreinaldia, hain zuzen ere.

Gaur, egubakoitza, eta astelehenan, *Collateral* filma emango dute Amaia Udal Antzokian. Thriller horrek 120 minutu irauten du, eta Michael Mannek (*El último mohicano*, *Heat...*) zuzendu du.


Maxek hamabi urte daramatza taxi-gidari lanean hiri handi baten. Gau baten, Vincent hiltzaileak mendekua hartu gurako du eta Maxen taxian sartuko da.

Protagonistak honako hauek dira: Tom Cruise (*El último samurái*, *Eyes wide shut...*), Jamie Foxx (*Un domingo cualquiera*, *Ali...*),

Mark Ruffalo (*Studio 54*, *Mi vida sin mí...*) eta beste batzuk.

'ILARGIAREN SEKRETUA', UMEENDAKO Bihar, zapatua, Hik Hasi elkar-teak egin duen *Ilargiaren sekretua* filma estreinatuko dute. Umeendako film horrek 90 minutu irauten du, eta Alicia Garaialdek eta Enrique Urdanozek zuzendu dute. Gidoia, berriz, Maialen Lujanbiok idatzi du. Protagonistak honako hauek dira: Pirritx, Porrotx, Ramon Agirre eta Anartz Zuazua, besteak beste.

Datorren egunean, hilaren 25ean, *Primavera, verano, otoño...* drama emango dute. 103 minutu irauten du eta Kim Ki-Dukek (*Bad guy*, *La isla...*) zuzendu du. Koreako bi monjeren gaineko filma da. Lasai-lasai biziko dira urtaroen aldaketei begira, emakume batek biek lortu duten oreka apurtuko duen arte.



ARRASATE PRESS

Tom Cruisen azkeneko filma thrillerra da.

KULTURAPILULAK

Liburutegian txartel berriak egingo dituzte, eta erabiltzaileek aldatu egin beharko dute

Udal Liburutegian txartel berriak egin behar dituzte, erabiltzaileek Internet bidez EAEko hainbat liburutegitan kontsultak egin ditzaten. Arrasatekoak eta EAEko beste hainbat liburutegik eskua hartu dute egitasmo horretan. Horri esker, beste liburutegi batzuetako liburuak maileguan hartzeko aukera egongo da.

Erabiltzaileek liburutegiko txartel zaharra eta NAREN fotokopia eraman beharko dituzte Monterronera.

Egoitz Lasak ipuinak kontatuko ditu bi egunetan Monterongo haur liburutegian

Datorren martitzenean, hilaren 23an, Gorringo antzerki taldeko Egoitz Lasak ipuinak kontatuko dizkie 3, 4 eta 5 urteko umeek. Horrez gain, egunean, hilaren 25ean, 6, 7 eta 8 urtekoendako izango da ipuin kontalari ikuskizuna. Bi ekitaldiak Monterongo haur liburutegian izango dira. Martitzenekoa, 17:30ean; eta eguenekoa, 18:00etan. Apirilean, Santa Marinan egin zuen ikuskizuna.



TXATXILIPURDI

...etako gazte txokoetan egiten dituzten ikastaro eta bestelakoek gain, ia zapaturo ekintza bereziak egiten dituzte.

Gazte txokoen hamar urteko ibilbidea ospatzeko, ekitaldiak

OR BARANDIARAN

...txatxilipurdi elkarte orain dela hamar urte hasi zen herriko auzoetan gazteekin lanean. Horretarako, Udalaren laguntzarekin, gazte txokoak eratu zituen. Bi zaharrenek 10 urte bete dituzte.

...musakolako eta San Andresko gazte txokoek hamar urte bete dituzte, eta Uribarrikoak sei urte. Horrez gain, hamar urte bete dira egitasmo hori abian jarri zutenetik. Partitzenetik egubakoitzera, arratsalde, 12 eta 17 urte bitarteko gazteek gazte txokoak zabaldu zituzten. Horietan, jolasak, zuzenki, gain, euskararen erabilera erabiltzen dute eta begiraleak erabiltzen dira gazteei kritikotuz, auto-antolaketa eta beste ekitaldiak erakusten. Horrez gain, zapatuetan, goizez eta arratsalde, ekintza bereziak egiten dituzte, txokoetatik kanpo. Guztira, sei begirale dabilta lan

horretan: mutil eta neska bana, gazte txoko bakoitzean.

EGITARAU ZABALA

Orain arte egindako ibilbidea ospatzeko, egitarau zabala antolatu du Txatxilipurdik.

Astelehenean, hilaren 22an, abian dagoen argazkilaritza lehiaketan esku hartzeko epea bukatuko da. Jasotako lan guztiekin erakusketa egingo dute hiru gazte txokoetan, 23tik 27ra bitartean. Irabazlearen izena hilaren 26an aditzera emango dute ARRASATE PRESSEn. Irabazleak bi hilabetearen errebelatuak doan

Orain dela hamar urte auzoetan gazteen aisialdirako ekintzak antolatzen hasi ziren

izango ditu. Eguenean, hilaren 25ean, film emanaldia egingo dute Musakolako gazte txoko zaharrenean, hau da, San Isidro elizako lokalean. Barrio filma emango dute, 18:00etan.

Datorren zapatuan, hilaren 27an, gazte bazkaria egingo dute AEDko txokoan. 14:00etan izango da, eta txartelak salgai daude Txatxilipurdin, Gazte Bulegoan eta gazte txokoetan. Hiru euro kostatuko da. Horren ostean, 17:00etatik 20:00etara, puzgarriak ipiniko dituzte Uarkape pilotalekuan.

Zapatuan, iluntzean, kontzertua egingo dute gaztetxean: Zarauzko SKT Sekuentziak, Arrasateko Lau taldeak eta Euskadi Gaztea lehiaketako irabazle Kerobia taldeak esku hartuko dute. Sarrera hiru euro izango da.

Txatxilipurdiko lagunek eta gazte txokoetako begiraleek herriko gazteak gonbidatu dituzte ekintzetan esku har dezaten, eta gazte txokoetara jo dezaten.

Margo Taldeak erakusketa ipini du Harresi aretoan

I.B.

Gaur, egubakoitza, Margo Taldeak erakusketa inauguratuko du Harresi aretoan. 19:00etan izango da ekitaldia. Herriko margolarien erakusketa ikusgai egongo da hilaren 28ra arte.

Margo Taldeko lagunek, urtero moduan, erakusketa ipini dute Harresi aretoan. Gaur, egubakoitza, zabalduko dute, eta hilaren 28ra arte egongo da ikusgai.

Margo Taldea orain dela hamabost bat urte sortu zuten, eta ordudanik urtero egin dituzte halako erakusketak. Hasieran, ospitale zaharrenean elkartzen ziren margotzeko. Orain dela 3-4 urte, berriz, Udalak Eskualdeko Ospitalearen inguruan, Zalduspe kalean, beste egoitza bat utzi zien. Han dabilta lanean.

Gaur egun Margo Taldea hogeit hamar lagunek osatzen dute. Gehienak emakumezkoak dira (15 bat-edo), eta kide gehienek 40 urtetik gora dituzte, gazteagoak ere egon badauden arren. Taldeko kideek diotenez, egoitza handia da eta guztiendako lekua dute, baina zoritxarrez ez dute argindar nahikorik.

35 BAT MARGOLAN BATUKO DITUZTE

Taldeko kide bakoitzak bizpahiru lan eramango ditu erakusketara. Euren esanetan, "urtero moduan, Harresi aretoa betetzea izango da helburua". Horretarako, herriko margolariek euren lan txukunenak aurkeztuko dituzte: erretratuak, paisaiak, natura hilak...

Erakusketa horren helburua da "herriak ikustea zein lan egiten ditugun urtean", azaldu zigun Felix Ayalak.



I.B.

Zalduspe kalean du egoitza Margo Taldeak.

KULTURAPILULAK

Musika Eskolak eta Goikobaluk Santa Zeziliaren gaineko ekintzak egingo dituzte

Astelehenean, Santa Zezilia eguna -musikarien patroia- dela eta, hainbat elkartek ekintzak antolatu dituzte. Batetik, bihar, Arrasateko Musika Eskolako bandak kalejira egingo du. 19:30ean elkartuko dira eta honako bi piezak joko dituzte: *Kalerik kale* eta *Arrasateko Musika Eskolako eresia*. Bandaren 10. urteurreneko lehenengo ekitaldia izango da. Bestetik, datorren egubakoitzean, hilaren 26an, Musika Eskolan kontzertua egingo dute ikasleek.

Horrez gain, bihar, Goikobaluk Santa Zeziliaren omenezko txikiteoa egingo du. 20:00etan elkartuko dira Portaloian, kalean kantuan ibiliko dira eta horren ostean, afaria egingo dute.

BASATI TABERNA
 PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
 943 711767

UGARAN jatetxea
 Garagartza auzoa
 Tel.: 943 79 76 58
 ARRASATE

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR
 Zaharberritzeak
 PVC, ALUMINIOA, EGURRA
 Erakusketa eta biltegia:
 Kale txiki 3 behe (Musakola)
 Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
 Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia
 Leihoak
 Ateak
 Armairu enpotratuak
 Armairu-fronteak
 Mota guztietako zoruak
 Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
 Neurria egindako alfonbrak
 Gortinak, mahaiak eta aulkiak

ZAHARREN ETXETIK

Santa Marinako Toki Argi elkartearen osasunaren gaineko berbaldi ugari

IKER BARANDIARAN

Santa Marinako Toki Argi elkartearen fin-fin dabil auzoan ekitaldiak antolatzen. Azkenaldian, elikaduraren gaineko jardunaldiak egin dituzte. Eta orain, gaia aldatu dute. Herenegun, eguaztenean, Mercedes Acera psikologoak *Como mantener un cerebro joven y sano* berbaldia egin zuen. Horrez gain, buru-arietak egin zituzten, azkartasuna bermatzeko.

Astelehenean, hilaren 22an, sendagaien gaineko berbaldia egingo dute, eta horien gaineko zein erabilera egin aholkatuko dute.

Datorren astelehenean, hilaren 29an, alergiak izango dituzte berbaldiak. Gaur egun dauden alergiak bereizten eta horiei aurre egiten ikasiko dute, erretiratuei ere kalte handia egiten diete-eta.

BIHOTZA ETA IKUSMENA, BERBAGAI

Abenduaren bi berbaldi egingo dituzte. 13an, azalduko dizkiete bihotzeko gaitzak zeintzuk diren eta horiek ekiditeko zer egin dai-



Toki Argi elkartearen egiten duten berbaldiek harrera ona izaten dute.

tekeen. Eta 20an, begi-lausoen gainean berba egingo dute. Ikusmena zaintzeko aholkuak eman go dizkiete. Berbaldi horiek guztiak 17:00etan izango dira, elkar-

tearen areto nagusian, eta Hirugarren Adineko Institutu Komunitarioak emango ditu.

Horrez guztiaz gain, dagoneko hasi dira Santa Luzia egu-

na prestatzen. Abenduaren 13an, txokolatea eta bizkotxoak eman go dituzte eta Quintanilla musikariaren laguntzarekin dantzaldia egingo dute.



90 urtetik gorakoei omenaldia, Abaroan

Martitzenean, hilaren 23an, Abaroak elkartearen bazkide diren 90 urtetik gorako lagunei omenaldia egingo die. Antolatzaileen esanetan, 60 lagun inguruk esku hartuko dute.

Honako argazkia orain dela bi urte ateratakoa da, baina jakin badakigu aurten ere Abaroako aretoa bete egingo dutela. Bizi itxaropena handiagoa da, eta Arrasate ere horren eredu da. Ekitaldian, Udaleko eta Abaroako ordezkariak eta parrokoak esku hartuko dute. /I.B.

LABUR

Depresioaren eta antsietatearen gaineko ikastaroa

Lahar elkarteak erretiratuen depresioaren eta antsietatearen gaineko ikastaroa antolatuko du. Astelehenean (hilak 22) 26ra arte egingo dute IMI-ren lokalean (Arrasate Pasealekuan), 17:00etatik 20:00etara. Pedro Bilbatuak gidatuko du ikastaroa, eta matrikula 18 euro izango da.

Abaroako mahai-jokoaren txapelketarako deia

Abaroako elkartearen arduradunek aditzera eman dute eguegan mahai-jokoaren txapelketan esku hartzeko izena eman dutenek 16:00etan egon behar du dutela Abaroan. Txapelketan hainbat sail egongo dira, eta, urtero moduan, parte-hartze handia espero dute antolatzaileek.

APPALDEK aditzera eman du lanean jarraituko duela

Debagoieneko aurretik erretiratuen eta pentsionisten elkarteak (APPALDE) aditzera eman du Espainiako Estatuaren aurretik erretiratuen elkarteak ez dituela sinadura nahiko lortu. Aurre erretiratuen gaineko legea aldatzeko 500.000 sinadura beharrezkoak ziren, baina zoritxarrez Espainiako Estatuaren 413.584 besterik ez dituzte batu.

APPALDEkoak atsekabeta daude gutxienez sinadura kopurua batu ez dutelako, baina adierazi dute EAEn jaso duten erantzuna oso ona izan dela. Izan ere, Espainiako Estatuan jaso diren 151.633 Euskal Autonomia Erkidegoko lagunek sinaturakoak dira; hau da, %36,7. Horien artean, 9.000 Debagoienekoak batu dituzte. Horregatik, lanean jarraituko dutela azaldu dute.

OSORIK
PUB


Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
•Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

PUB
HAIZEA



ESKORIATZA

Tfno 714345
MENDIOLA
ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astelehenean itxita
ESKORIATZA

EZETZASMATU



IKER BARANDIARAN

Zein kaletan dago burdin zati hori?
Arrastoa: horren ondoan auto askorendako aparkalekuak ipini dituzte.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

H&S xanpua
300 ml

3,75€ 624 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

PETRA MARI INDArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Petra Mari!
Galderen erantzun zuzena:
10 urte, eta bost jokalaria.

ARRASATEKO HISTORIA

Arrasateko baserri auzoetako bideak (III)

ARRASATEKO BASERRI... / G. ARZELUS

Joan den asteko auzobideen zerrendarekin jarraituko dugu. Asko dira bideak eta bide motak; makina bat desagertuta edo estalita dagoen arren. Argibideek bideok kokatzen lagunduko digute.

Andra Mari bide (Uribarri, 1899): Andra Mari bidea Uribarriko eliza ondotik Gomextio, Uribarri (Grandena) eta Larratxurantz doan bideari deritzo. Oso bide erabilia zen duela gutxira arte, batez ere, auzo bizitza egiteko, baina gaur egun urak, sasiak, txabolak eta zikinkeriak dira-eta lehenagoko erabilgarritasuna galdu du.

Azterturiko bideen artean, argian, Andra Mari bidea da bitxiena: ez handik igaro ziren prozesio anitzengatik (inguruko baserriek handik jaisten zituzten hildakoak), bideak zuen landaretza ederrarengatik eta harlauzezko zorwarengatik baizik. Bide honek luzean eta zabaleran izan zitzakeen metro guztiak harlauzez estalita zeuden.

Horrela, Arrasaten aztertutako eta harlauzez osatutako bide bakarrenetakoa da (bakarrena ez bada). Bestalde, bidearen bi ertzetan lora zuri eta ugariak



Uribarri auzoan zegoen Andra Mari bideak inguruetako baserriak lotzen zituen.

zituzten arantzak zeuden (oraindik ere leku batzutan ikus daitezke), udaberri eta uda partean izugarritzko alaitasuna ematen ziotelarik ibilbide osoari. Horretaz gain, Grandena, Erguin, Santana, Arrixan, Larratxu, Eguzkitza eta Gomextio baserrien bide

Andra Mari bidea edertasunarengatik zen ezaguna; ertzetan loreak zeuzkan

nagusia zen. Bestalde, 1700ean eta Udalatxeko Igokunde Errogetiben bigarren egunean, Santanatik Uribarrira jaisteko erabiltzen zen, Andra Mariko elizara itzultzeko, alegia.

Anzarigartu (Zaldibar, 1778): Eritetxearen atzetik eta

saihesbidearen azpitik doan asfaltatutako bidea, Azuela eta Bakue mendietara doa. Bide horren ondoan eta mendiaren magalean bi baserri daude: Antzarigartu eta Aspobaltz. Antzarigartutik Azuelara iristeko biderik garrantzitsuenak *Erregebidea* bada ere, baserri hark ba omen zuen 1778an bederen, Azuelaraino zeraman burdibide bat. Herrira jaisteko, ordea, beste bide bat zuten, Aspobaltz baserritik zetorrenarekin lotzen zuena, alegia: gaur ere halaxe da.

Aquey-bide (Mietzerreka, 1899): Gaur egun, Akei izanarekin labak dauden tokia ezagutzen bada ere, Akeik edo Akegi (jatorrian azken hau zaharragoa) eremu handiagoa hartzen du, gehiena Mietzerrekan. Azken hiru mendeetan, batez ere, gaztaina lekua izan den arren, gaur egun pinuak dira nagusi.

Esan beharra dago, baserri gehienen oinarri ekonomiko garrantzitsu bat gaztaina zela, eta basoan sortzen ziren fruitu horiek baserriaren eramateko bidearen beharra zutela. Hori izan zitekeen Akei bidearen funtzioa, hots, baserriak eta inguruko gaztainadiak lotzea. Bestalde, XIX. mendetik aurrera, gaztainadiak zelai bihurtu dira.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko azaroaren 19a / 130. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorala Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Gaztelekua erabiltzeko baldintzak ez direla betetzen adierazi du Udalak

JON BEREZIBAR

Gaztelekua erabili ahal izateko baldintzak betetzen ez direla ikusita, lokala itxiko dutela ohartarazi die Udalak gazteei. Aramaioko Gazte Asanbladak adierazi duenez "Udala gaztelekua ixteko aitzakiak bakarrik bilatzen" dabil; eta sinadura bilketa kanpaina hasi dute.

Lokala erabili ahal izateko baldintzak bete ezean gaztelekua itxi egingo dutela ohartarazi zieten Aramaioko Udalekoek gazteei, orain dela astebete egindako bileran baten. Abisu hau betez gero, gazteek lokala utzi beharko duten hirugarren aldia izango da. Izan ere, aurrez ere urtebete egon zen itxita gaztelekua, Udalak horrela erabakita.


Bere garaian, lokala erabiltzeko akordioa egin zuten Udalak eta Aramaioko gazteek, gaztelekua erabiltzeko hiru baldintzarakin: garbi egotea, bertan ez

erretzea eta 20 urtetik beherako gazteak bakarrik egotea. Hiru baldintza horiek onartuta, gazteek euren ekintzetarako erabili ahal izan dute lokala.

"TXERRI EGINDA"

Udalak joan den astean deitutako bileran baldintzak ez direla betetzen adierazi zien. Izan ere, alkateak esan digunez, udal ordezkariak urriaren 30ean egon zirenean lokalean, eta "zerri eginda zegoen". Gainera, han "tabakoa eta beste erretzen" direla badakitelako agertu digu Mertxe Mondragonek.

Egoera hura ikusita, bilerara deitu eta gazteak ohartarazi zituzten joan den astean. Alkatearen esanetan, "gaztelekukoek lokala erabiltzeko baldintzak onartu egin zituzten bere garaian eta berriz ere ez dituzte baldintzak bete". Hala eta guztiz ere, alkatea gazteekin "nahi dutenean hitz egiteko prest" dago; alde biak, beraz, berba egiteko prest daude.



Aramaioko ehun bat gazte erabiltzen dute egun gaztelekua.

Gaztelekukoek, berriz, ez dute ongi ikusten 20 urtetik beherakoak izan beharreko baldintza, eta "zentsugabekoa iruditzen

zaie". Halaber, "zikintasunaren kontua gezurra dela" adierazi digute, "momentu honetan taldeka garbitzen" dute-eta lokala.

Urrian egindako bisita baten gaztelekua "txerri eginda" topatu zuten udal ordezkariak

Gaztelekukoek adierazi dute "Udala lokala ixteko aitzakiak besterik ez duela bilatzen"

Era berean, "Udala gaztelekua ixteko aitzakiak" bilatzen dabilela esan digute gazteen ordezkariak. Horren berri eman eta babesa lortzeko sinadurak bilatzen hasi ziren zapatuan.



Mahai jokoak eta entretenimendua Gantzagako San Millanetan

Hotza egin du asteburuan, baina hori ez da gantzarrentzat aitzakia izan jaiak bertan behera uzteko. Berotan, hori bai, Izpizte elkartean mahai jokoak izan zituzten zapatu arratsaldean. Hala ere, hotzarengatik ez ziren kikildu auzokoak, eta gaueko dantzaldirako makina bat lagun animatu zen Jon Ostolatza eta Unai Andonegiren trikitixekin. /J.B.

LABUR

Presoen aldeko sinadura bilketa kanpainari ekin zioten zapatuan

Pasa den zapatuan hasi zuten Aramaion preso politikoaren aldeko sinadura bilketa. Euskal Herri mailan egin zen ekimen hori eta Aramaion ere bilketa egin zuten herriko ordezkariak.

Jasotako erantzunarekin "gustura" agertu dira Aramaioko Etxerateko ordezkariak: "Nahiz eta sinadura askorik ez bildu, nahikoa izan zen Aramaio moduko herri batendako". Bilketa zapatuan amaitu zuten arren, presoan aldeko kanpainarekin aurrera jarraituko dute. Izan ere, ekimen honek urte bukaera bitartean iraungo du, bai Aramaion eta baita Euskal Herriko gainontzeko herrietan ere, *Euskal Presoak Euskal Herrira* lelopean. Kanpaina horrekin batera, orain arte bezala, ohiko agerraldi eta informazio ekimenekin jarraituko dute Aramaio taldekoek.

Amnistiaren Aldeko Mugimenduen nahia da sinadurak biltzeaz gain herritarrek ere presoan egoraz konturatu eta konpromisoa hartzea.

Horretarako, Aramaion hilabete amaierako kale agerraldiekin jarraituko dute informazio kanpainarekin batera.

Pasa den zapatuan sinadura bilketarako orrietan sei puntu atxikipen bat ere gehitzen zen. Lehenik eta behin, sakabanaketa politikoak presoan eta haien senitartekoen oinarriko eskubideak urratzen dituela salatzen dute. Horrekin batera, senideentzako "heriotza zigorra" ezartzen dela adierazi dute. Izan ere, dagoeneko 34 senitarteko hil dira errepidean.

Hirugarren puntu baten ezagutarazi nahi dute presoan "jatorri eta izaera politikoa" eta, halaber, "euskal prozesu politikoaren parte har dezatela" bermatu.

TELEFONOJAKINGARRIAK

GURASUNA / LARRIALDIAK	
Gurasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Basatia	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Arasate (Arrasate)	943 79 71 99
Arasate Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Arasate eta autobusak	945 44 50 33
Arasate kirolegia	945 44 53 35
Arasate	945 44 50 83
Arasate Eskualdea	945 43 01 67
Arasateak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Autoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabilik gura badute, bezperan deitu behariko dute honako zenbaki honetara: 929 54 59 23



Bartzelonar bat partxisko irabazle

Txomin Elortza, Ainhoa Ruiz eta Iker Arriolabengoa, argazkian hurrenez hurren, izan ziren zapatuan Txirriritola elkarteak antolatutako partxis lehiaketaren irabazleak. Hogeita hamahiru lagunek hartu zuten parte lehiaketan, eta ia denak aramaioarrak izan arren, azkenean bartzelonar batek irabazi zuen nagusien mailako saria: Ainhoa Ruizek, hain zuzen ere.

Sariei dagokienez, 60 euro izan zen gazte eta haur kategorietan eta nagusietan, berriz, 90 euroko saria eman zuten.

//JON BEREZIBAR

LABUR

Gurasoen topaketak bertan behera utzi dituzte, jenderik agertu ez delako

Hilabete honetan ziren egitekoak gurasoen arteko topaketak San Martin ikastolan. Zuiako Koadrilak antolatuta eta Foru Aldundiaren laguntzarekin hezitzaileek gidatutako saioak antolatzea izan zen topaketen helburua. Lehen bilera joan den martitzenean egin zuten, baina ikastolara guraso bakarra gerturatu zen ikastolako zuzendariarekin batera. Jasotako erantzuna dela eta, saioak bertan behera uztea erabaki dute antolatzaileek.

Hala ere, datorren urteari begira beste saio batzuk antolatzea pentsatu dute. Koadrilako gainontzeko herrietan arrakasta izan du programak, eta beste saiakera bat egingo dute.

Arkitekto eta aparejadore berriak hasiak dira dagoeneko lanean Udalean

Udalak dagoeneko esleitu ditu Zerbitzu Saileko txostenak diseinatuko dituzten aparejadore eta arkitekto lanpostuak. Unai Aias-tuik eskuratu du arkitekto plaza eta Aritz Maillok aparejadorearena. Dagoeneko hasiak dira biak lanean Udalean.

Alberto Mendiaren eta Xabier Berridiren lekuak bete dituzte. Orain arte, behin-behinerako langile bi ibili dira lanean, Udalaren jardunean etenik ez egoteko.

Behin-behineko tarte horretan deitu dute lehiaketa publikoa, eta hura irabazita Unai eta Aritzek eskuratu dituzte lanpostuak.

'Kill Bill' filma ikusteko aukera izango da aste honetan kultura etxean

Zineklubak bere ohiko programazioarekin jarraituko du aste honetan. Uma Thurmanek sablea esku artean, *Kill Bill* film ezaguna ikusteko aukera izango da aste honetan, beti bezala barikuan, 22:30ean. Gainera, Udalak dagoeneko aditzera eman du abendurako film programazioa. Datorren hilean *King Arthur*, *Shrek* munstroaren bi filmak, *La milla verde* eta *Ying Xiong* egongo dira ikusgai. Gehienak fantasiako filmak dira.

MONDRA-UDA

Debagoieneko derbi klasikoena Goiena Telebistan

Zapatuan, azaroak 20an
Atxabalpe futbol zelaian, 15:30ean
20:00etan GOITBn

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

MONDRA-UDA
Laguntzaileak: Amets, Basati,
Iamai Kafe Antzokia, Irati, Iturriotz,
Itzala, Monte, Okoretzgi, Ezkutu,
Ibarra jatetxea, Haizea



ERRETRATUZAHARRA

Txantxetako ezkontza
50eko hamarkadan

Arratsalde baten zer egin jakin ez eta ezkontza bat antzeztea otu zitzaion lagun koadrila horri, apaiz eta guzti gainera. 50eko hamarkada erdialdera egin zuten argazkia eta lehen begiradan ez eman arren, guztiak emakumezkoak dira. Ezkerretik hasita, lehena Mertxe Aranburu dugu, anaia apaizaren sotana jantzita. Aldamenean Mari Tere Arriaran dauka, gizonetako jantzita eta ezkongai bikotea Arantxa Velez de Mendizabal eta Enkarna Artzamendi ditugu. Horien ondoan ezkerretik eskumara: Nati Garmendia, Ana Mari Bitoria eta Carmen Berezibar ditugu. Guztiak lagun koadrila osatzen zuten eta ezkontza hori ez zen izan garai hartako euren burutazio bakarra

izan. Argazkian ikusten dugun lorategia Montxon etxeari dagokio. Gaur egun han Grupo San Juaneko etxeak daude eta ez dago antzinako eraikuntzen arrastorik. Txantxetan eta ondo pasatzeko ezkontza izan zen arren, xehetasunik ez zuen falta izan ospakizunak. Jatekoa eta edatekoa, asetzeko nahiko izan zuten eta merienda egin ostean, dantzaldia. Horretarako, gaur egun Lontxo taberna moduan ezagutzen dugunera, orduan Bar Lorenzora, *La voz de su amo* markako gramofonoa eraman zuten. Jaia amaitzeko, pianoa jo zuen lagunendako etxean.


Argazkia: Mertxe Aranburu
Informazioa: Mertxe Aranburu
Urtea: 50eko hamarkada



NOLAALDATUDIRENGAUZAK


Maalako
biribilgunea
egiteko lanak

Maalako biribilgunea egin ahal izateko, Aramaio erreka apur bat gehiago estali behar izan zuten, bestela ez zegoen-eta nahiko leku. Zirkulazio arazoak izaten ziren bidegurutze horretan, Arrasateko hainbat kale hor elkartzen dira-eta: Maalako Errabala, Otalora, Garibai eta Grupo San Juanekin bat egiten duen errepidea. Erreka bost metro gehiago estali zuten.



≈ 1994


Erreka estaltzen hasi aurretik, hondeatzeko makinek lan handia egin behar izan zuten errekekako ura bideratzen.



2004

Garibai, Otalora eta Maala artean zegoen bidegurutze nahasi hura kendu eta biribilgunea egiteko, orduko 30 milioi pezeta erabili zituzten.

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



PROFESIONAL *liberalak*

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK
Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

EMUN KOOP. E.
Uriburu 9, behea. Arrasate
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26
emun@emun.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
Otalora 16, solairuartea, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net

ABOKATUAK

**LIA ALTUNA
BEGOÑA LASAGABASTER**
Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

BITART

**Larraitz Ugarte
Maider Morras**


Nafarroa etorbidea 23
Arrasate
Tel.: 943 71 25 22 / 943 71 25 23
Poltsikokoa: 659 59 71 21

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA
Zerkaosteta 17 behea
Tel.: 943 79 67 78 / Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

Etxeko konponketak

Elektrizitatea

 **Aranzabal** Koop. E.

Instalakuntza elektrikoak
Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

Leihoak



ARGÍ PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./ Faxes: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA

Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea

Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxes: 943 79 11 35

Eraikuntzak

**Arrasate
eraikuntzak SL**

Meatzerreka auzoa 30
Tel.: 659 67 17 59 / 943 77 12 26

JOVI

10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87



**Izcue
Irurzun**

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66



ZUTARRI S.L.

Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.
Tel: 943 79 67 78 Faxes: 943 77 10 09

Zure publizitatea hemen jartzeko deitu 943 71 23 91 telefonora